

## NORMALTASUN BERRIAN ZAINZAILEEI EMAN BEHARREKO ARRETA

Konfinamenduan, “normaltasun berrian”, eta gero? Nola zaindu?

**Azaroak 05, osteguna**

10:00etatik 11:30era

Zoom plataforma

**Ponentes:**

**Esther Alonso.** Psikologoa. Durangoko Merinaldearen Amakomunazgoan Zaindu zerbitzuko Sasoia 3<sup>a</sup> Edad S.L-ko koordinatzailea.

**Vanessa Resa.** Ascudean elkarteko (zaintzaileen eta mendek pertsonen elkarte) koordinatzailea.

**Nerea Galdona** Psikologoa. Matia Fundazioan Sendian programako eta FGZPE laguntza ekonomikoari lotutako zaintzaileentzako prestakuntza-programaren koordintzailea.

## Hausnarketa-testuingurua

COVID-19ak eragindako osasun-krisia dela eta, denok jasan dugu gure bizitzetan bat-bateko aldaketa eta ezohiko egoerara moldatu behar izan dugu. Norberaren gorabeheren eta baliabideen arabera, hobeto edo okerrago egin diogu aurre egoera berri horri. Mendekotasuna duten pertsonen dagokienez (horixe da, hain zuzen ere, gaixotasunaren aurrean kolektibo ahulena), konfinamenduko eta distantzia sozialeko ekimen ugariaren lehentasuna duen populazio bihurtu dira kutsadura saihesteko eta horrek hamaika eragin izan du haien bizitzetan.

Konfinamenduak eta ondoren etorri den “normaltasun berrirako” itzulerak zainketa-egoerara egokitzea eta egoera hori berriro planteatzera eraman gaituzte. Kasu horretan, zaindutako pertsonen eta haien zaintzaileek, kasu askotan, ezin izan dute eguneroko bizitzan laguntza eta babes ematen zieten babeseko sare formalik (eguneko zentroa, adinekoen zentroa, autonomia sustatzeko zentroak eta abar) edo informalik (lagunak, familiak eta abar) izan arnasa hartzeko une horretan lagundu ahal izateko, eta ez dira bertan egon osasun-egoera dela eta.

Baina ez gara etxeko zainketez bakarrik ari; izan ere, senideak egoitzetan dituzten familiek ere egokitu eta senideen alderdi afektiboenetik abiatuta ez zaindu ahal izateak eta bertan ez egoteak berekin dakarrena onartu behar izan dute.

Egoera honek eztabaida berriak piztu ditu gure gizartean gai ugariaren inguruan: zaintza-ereduak, bakardade-egoeran dauden adinekoek dituzten laguntza-beharrak, osasun-krisiak larriagotutako egoerak bizi dituzten familien egoera zehatzekin lotuta erakundeek eman dituzten erantzunak eta abar.

**Honelako saioa egitearen arrazoia da gogoeta, azterketa eta ezagutza partekatzea eta, denon artean, familia zaintzaileek modu esplizituan edo inplizituan eskatzen dituzten arretako eta esku-hartzeko beharrei erantzuna eman ahal izateko etorkizunera begiratu ahal izatea.**

## Elkarrizketarako helburuak

- Gai hauei buruzko gogoetak partekatzea: familia zaintzaileek nola bizi dituzte eta zer eragin izan dute haiengan konfinamenduak, pandemiak eta horren ondorioak, eta erakunde publiko eta/edo pribatuek behar horiei zer erantzun eman dieten.
- Familia zaintzaileekin lotutako esku-hartzeari eta arretari buruzko prospekzioa egitea epe laburrera eta ertainera begira.
- Familia zaintzaileekin esku-hartzearen etorkizunerako orietnazioak identifikatzea eta partekatzea.